



# BERTSOTAN MENDILUZE ETA ZUBELDIAREKIN

Hilaren 14an bertso-bazkaria izango da Alegiako Kultur Etxean, Zazpi Astoren Gainean eta Txolarre irratia eskutik 5

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteazkena  
2009-03-04

VIIURTEA 1.645.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Asvineneako May Gorostiaga eta Irene Larraza kultur teknikaria, atzo Kultur Etxeko aurkezpenean. ESTI EZEIZA

## AHOZ AHO JAIALDIA HERRIKO GUNEETAN ZEHAR ZABALDUKO DA

**TOLOSA** Asvineneak eta Udalak antolatuta, nazioarteko hainbat artista izango dira bigarren urtez, hilaren 9tik 15era bitarte 3

## Beterriko II. Bertsolari Txapelketa abiaraziko dute

**AIZTONDO** Larramendi Bazkunak antolatuta, hilaren 13an izango da lehen kanporaketa 7



Eider Iruretagoienak *Autoestima* hitzaldi tailerra eskaini zuen Tolosan. R. CALVO

## Emakumearen Egunaren harira hamaika ekitaldi

**TOLOSALDEA** Datozen egunotan eskualde osoan aldarrikapen eta ospakizun ekitaldiak izango dira 6



### Bertsolarhitza<sup>info</sup> desafioa

1. saioa: **Ibarra vs. Alegia**

Bertso-Afariko sarrerak 15 euro  
(Zubiaurre Tabernan, Atari Tabernan, Danon Txokoa Tabernan salgai)

**Non:** Ibarako Gaztetxean  
**Noiz:** Martxoaren 6, ostirala 21:00etan



**Antolatzaileak:**  
Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko Hitza  
eta Gipuzkoako  
Bertsotale  
Elkartea.



### Oharra:

EAeko hauteskondeen berri emateko **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO** langileek igandean lan egin zutenaz, gaur hartuko dute asteko jai eguna. Bihar, beraz, ez duzue **HITZARik** izango postontzian. Etzi izango gara berriro ere zuekin.



Ezkerrean Lander Gil, eta eskubian Andu Martinez de Rituerto, artxiboko irudian. HITZA/VL/REGO

## Emaitza onak lortu dituzte eskualdeko kirolari beteranoek nahiz gazteek

**Atletismoa** » Beteranoen Espainiako Pista Estalikoan, Autonomien Artekoan eta Pista Estaliko Absolutuan hartu dute parte.

### ERREDAKZIOA

Atletismoak emaitza onak utzi ditu beste behin ere eskualdeko kirolarien artean. Izan ere, Beteranoen Pista Estaliko Espainiako Txapelketa, Autonomien Arteko Espainiako Txapelketa eta Espainiako Pista Estaliko Txapelketa Absolutua jokatu berri dira, eskualdeko hainbat kirolarik hartu dutelarik parte bertan, eta emaitza «oso onak» lortu dituzte, gainera.

Zaragozan (Espainia) jokatu zen Beteranoen Pista Estaliko Espainiako Txapelketa, eta bertan Tolosako lau parte-hartzaile izan ziren, Juan Carlos Etxebeste, Jose Benito Ezkerro, Jose Antonio So-

brino eta Andu Martinez de Rituerto.

Juan Carlos Etxebestek 50 eta 54 urte artekoen kategorian hartu zuen parte. 60 metroko proban marka «oso txukuna» egin bazuen ere (8 segundo eta 26 ehuneneko) finaletik bi ehunenekoetara gelditu zen. Azkenean, beraz, zapigarren postuan sailkatu zen.

Jose Benito Ezkerrok, berriz, 45 eta 49 urte artekoen kategorian hartu zuen parte; 60 metroko proban, irteera kaxkarra egin ostean, 8 segundo eta 66 ehuneneko markar egin zuen, 13. postuan sailkatu zelarrik.

Jose Antonio Sobrinok ere 45 eta 49 urte artekoen kategorian hartu zuen parte. Luzera jautzian 6. geratu zen 4 metro eta 67 zentimetroko jauziarekin.

Azkenik, Andu Martinez de Rituertok 40 eta 44 urte artekoen kategorian hartu zuen parte. 60 metro hesietan bigarren egin zuen 9 segundo eta 76 ehuneneko marka-

rekin. Luzera jautzian, bestalde, 4,5 metro eta 64 zentimetroko jauzia egin zuen, eta altuera jautzian lehenengo postuan sailkatzea lortu zuen, metro bat eta 73 zentimetroko jauzia egin ondoren.

### Autonomien artekoan maila polita

Bestalde, Jaenen (Espainia) Autonomien Arteko Espainiako Txapelketa jokatu berri da, eta bertan Euskadi ordezkatzan Tolosa CF taldeko atleta hauek izan ziren: Maddi Garikano, Unai Arroyo, Ane Elizegi eta Tamara Lozano.

Maddi Garikano kadeteetan lehiatu zen, eta lan txukuna egin zuen. Unai Arroyo, berriz, jubenil mutiletan aritu zen, 16. postuan sailkatu zelarrik. Aipatzekoa da, ez zela egoera oso onean joan, eta hori kontuan hartuta, «oso emaitza ona» dela esan daiteke.

Ane Elizegi eta Tamara Lozano jubenil nesketan lehiatu ziren. Birkain aritu ziren biak, izan ere, lehenengo eta bigarren euskaldunak izan ziren, hurrenez-hurren.

### «Lorpen handia» Lander Gilentzat

Pasa den asteburuan, bestalde, otsailaren 21ean, Sevillan Espainiako Pista Estaliko Txapelketa Absolutua izan zen. Bertan, Lander Gil tolosarrak hartu zuen parte. 200 metroko frogan aritu zen, hain zuzen ere. Hala, bere markarik hobereena (22 segundo eta 15 ehuneneko) gerturatzerik izan ez bazuen ere, lorpen handia izan da beretzat, jubenil izanda txapelketa absolutuan izan baita.

## Turismotik at dagoen Afrika ezagutzeko aukera izango da bihar

**Gizartea** » Fernando Odriozolak hitzaldi-proiektzioa emango du bihar, goizean eta arratsaldean Aitzolen.

### INIGO TERRADILLOS

Fernando Odriozolak hitzaldi-proiektzioa emango du bihar Aitzol Udal Euskaltegian. Tanzania-Mozanbiketa izango du gai bezala emandialdiak, eta goizean, 09:30ean, eta arratsaldean, 15:30ean emango du bere bidaien berri.

Kazetaria eta bidaiari-gidaria da Fernando Odriozola, eta biharko saioaren kasuan, diapositiba emandialdi eskainiko du. 50 minutuko iraupena izango duen saioan, Tan-

zania eta Mozanbiketa artean egindako bidaiak azalduko du. Modu honetan azaltzen du berak egindako bidaiak: «Aintzinako esklabuen ibilbideetan, Mikumi Parke Naturaleko basapiztiak, Malawi lakuko tribuak eta dantzak, turismotik at den bestelako Afrika, Indikoko paradisuak, portugaldarraren aztarinak, gerraren ondorengo Mozanbiketa, Selous Afrikako ehiza-gune-rik handienean...».

Afrikan zehar ezezik, munduko hainbat lurraldetan burutu ditu bidaiak Fernando Odriozolak: Siria, Jordania, Kolonbia, Bolivia...

Kasu honetan, ordea, Tanzania eta Mozanbiketa gertutik ezagutzeko aukera izango dute biharko saioetara Aitzol Euskaltegiara hurbiltzen direnak.



Graffiti tailerra ere izango da aurten aukeran. A. A. IMAZ

## Gazteentzako ikastaroetan izen-ematea zabalik

### ERREDAKZIOA

Udaleko Gazteria sailak gazteentzat hainbat ikastaro antolatuta ditu, eta hauetan izena emateko aukera zabalik dago. Hain zuzen ere, ostiralerako arte izango da izena emateko aukera, Kultur Etxean, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Ikastaro bakoitzean parte hartzeko 15 euro ordaindu beharko da.

Salsa merenge ikastaroa Kultur Etxean izango da, astelehenetan 19:00etatik 21:00etara. Martxoaren 23tik ekainaren 15era bitarte emango dute, apirilaren 13a salbu, eta 12 eguneko ikastaroa izango da. 15 pertsonako taldea osatuko da gehienera.

Bestalde, makillaje ikastaroa:

ohiko eta fantasiakoa, Kultur Etxean izango da, asteazkenetan 18:30etik 20:30era. Lehenengo txanda martxoaren 11tik apirilaren 15era izango da, eta bigarrena, apirilaren 22tik maiatzaren 27ra. 6 eguneko bi ikastaro, beraz. 10 pertsonako taldea osatuko da gehienera.

Graffiti tailerra ere Kultur Etxean emango da, eta baita kalean ere. Hau astearteetan izango da 18:00etatik 20:00etara, eta apirilaren 16tik ekainaren 18ra arte emango dute, 10 eguneko ikastaroa, beraz. Zortzi pertsonako taldea osatuko da hemen, gehienera ere, eta 12 eta 18 urte bitartekoak beharko dute izan parte-hartzaileak.

### Donostia aldeko banaketa enpresa batek ADMINISTRARI-KOMERTZIALA lanpostua bete behar du

Lanpostuaren funtzio nagusia, lan komertzialak egiteaz gain, banaketa koordinatzaileekin elkarlanean kanpainen banaketa antolatzea eta haien jarraipena egitea izango da.

#### Eskaintzen da:

- Urte amaiera arteko kontratua (luzateko modukoa).
- Egun osoko lanaldia.

#### Eskatzen da:

- Administrazio eta merkataritza arloko ezagutzak.
- Bulegotika programen ezagutza, erabiltzaile mailan.
- Izaera dinamikoa eta harenanetarako erraztasuna.
- Antolaketerako gaitasuna.
- Gida baimena eta autoa izatea.
- Lan komertzialean eskarmentua izatea baloratuko da.

Curriculum vitae zehatza bidali martxoaren 10a baino lehen: gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo Jarduna SM (Giza Baliabideak Saila) Martin Ugaldel Kultur Parkea, 20140 Andoain helbidera

Ez ahaztu erreferentzia zehatzea ADMINISTRARI-KOMERTZIALA (Erreferentzia: 09-ET-KOM)

# Hitza izango da protagonista berriro, datozen egunetan, Ahoz aho jaialdian

**Tolosa** » Asvineneak antolatuta, hiriko eszenatoki ezberdinetan nazioarteko hainbat artisten saioak izango dira.

## ESTI EZEIZA

Asvinene Arte Eszenikoen Sustapen eta Laborategiak antolatuta Ahoz aho nazioarteko jaialdia ospatu da bigarren aldiz, datozen egunetan Tolosan. Hilaren 5ean Ordizian abiatuko da eta 9an iritsiko da gurera, 15era arte luzatuko. Tolosaren kasuan, haurrentzako nahiz helduentzako saioak izango dira ikusgai bederatzietako eszenatoki ezberdinetan. Estreinu edizio asmoekin jarraituz, ohiko erdigunetik ateraz, hiriko auzo eta elkarte ezberdinetan gozatu ahal izango da emanaldietaz. Saio guztiak doakoak izango dira, eta edozein joan ahal izango da ikustera.

Euskal Herriko, Alemaniako, Argentinako, Kamerungo, Txileko, Saharako, Venezuelako, eta Herrialde Katalaneko artistak etorriko dira oraingo honetan.



Atzo aurkeztu zuten Ahoz aho jaialdia, MAy Gorostiaga eta Irene Larrazak. E.E.

Jaialdian parte hartzen duten guztiak ezaugarri bat dute komunean, komunikatzeko hitza erabiltzen dutela. Halaber, hitz-jokoak, poesia, ipuin kontaketa, kondairak... entzuteko aukera izango da hurrengo egunetan.

Ahozkotasanaren nazioarteko jaialdia La caratula sustatu zuen eta duela 19 urte hasi ziren aurrera

eramaten. Hala, hauekin Asvineneak izandako harremanetik sortu zen iaz, nazioarteko jaialdi horren sarera Tolosa gehitzearen asmoa. Joan den urtean sortutako proiektuari jarraipena emanaz, oraingo honetan jaialdia Tolosan finkatzea da Asvineneakoen xedea.

Atzo aurkeztu zuten aurtengo

jaialdia Irene Larrazak Udaleko kultur teknikariak; May Gorostiaga, Asvineneako kideak eta Iñaki Agirrezabal Gorringo taldekoak. Azken honen hitzetan, luxu bat da eta aldi berean paradajioa, «etxe-aren egotea, baina aldi berean, nazioarteko jaialdi batean aritzea».

Aurten erdigunetik ateratzeko asmo horri jarraituz, Urkizu eta Bedaio auzoetan ere izango dira emanaldiak. Bestalde, tarte berezia eskaini nahi izan diote Saharak herrialdeari eta Ereite nahiz Tolosaldea Saharakarekin elkarrekin elkarlanean ekitaldi bat antolatu dute.

Ahozkotasanarekin lotuta, etzi eta larunbata bitartean Ana Torrellasek ikastaro bat eskainiko du. Haur bereziekin lan egiteko ipuin tailerra izango da hau, *El cuento y la conclusion* izenburupean. Zine-forumak ere bat egin nahi izan du ekimenarekin, eta datorren ostegunean, hau da, hilaren 12an saio bereziak izango dira. Tarsem Singh zuzendariaren *The Fall: el sueño de Alexandria* izango da ikusgai Leidor antzokian, 19:15ean, eta 21:45ean.

## » AHOZ AHO JAIALDIAREN EGITARAUA

### Martxoak 9, astelehena

■ **Peio Añorga.** 19:00etan, Asvinenean izango da oiartzuar honen emanaldia. 1986an irakasle lanak alde batera utzi eta ipuinak kontatzeari ekin zion. Azken aldian, haurrei zuzendutako saioak bakarrik egiten ditu. Euskaraz izango da saio hau.

### Martxoak 10, asteartea

■ **Itziar Rekalde.** 19:00etan, Bedaion, Itziar Rekalde ariko da ipuinak kontatzen, euskaraz. 1997an hasi zen ipuinak bilatzen, asmatzen, idazten eta irakurtzen. Baina batez ere, zerbait kontatu nahi dieten guztiei entzuten eta entzun nahi dizkieten guztiei kontatzen.

### Martxoak 11, asteazkena

■ **Maite Franco.** 19:00etan, Urkizun, Maite Franco ariko da ipuinak kontatzen euskaraz. Antzerkigintza, bikoizketa, irakuskuntza eta literatura aritutakoa da. 2004 urteaz geroztik, ipuinen munduan dabil, hurrez geroztik 800 saio egin ditu. Bertan, ahoz aho ibiltako ipuinak zein argitaratu berriak, jolas, asmakizun, eta framatizazioekin nahasten dira, umore, misterio eta mezu baikorrak barruan darमतatzelarik.

### Martxoak 12, osteguna

■ **Gorringo taldea.** 19:00etan, Sartutasortu tailerrean, Gorringo taldeak 1728 *animalia kontu* lana aurkeztuko du. Ixabel Agirresarobe eta Iñaki Agirrezabalak hartzen

dute parte emanaldi honetan. Hala inprobisatuz, 1728 animalien istoriak sortuz joango dira. Ipuin teatroa dela esan daiteke ikuskizun hau.

■ **Idoia Sanchez.** Eguneko azken saioa Bonberenean izango da, 22:00etan. Bertan izango da Idoia Sanchez tolosarra. Dagoeneko oso ezaguna da eskualdean, hainbat saio eskaini baititu. Ipuinak kontatzeaz gain, dantza, mimoa, antzerkia eta clown-en munduan ere aritua da.

### Martxoak 13, ostirala

■ **Peio Añorga.** 19:00etan, Sartutasortu tailerrean izango da oiartzuar honen emanaldia. 1986an irakasle lanak alde batera utzi eta ipuinak kontatzeari ekin zion. Azken aldian, haurrei zuzendutako saioak bakarrik egiten ditu. Euskaraz izango da saio hau.

### » Ahoz aho jaialdiko gala.

20:00etan hasiko da eta Leidor antzokian izango da. Bertan parte hartuko dute ahazkotasanaren artisa guztiak. Sarrerak Kutxanet bidez erosi daitezke.

### Martxoak 14, larunbata

■ **Itziar Rekalde.** 11:00etan, Bonberenean, Itziar Rekalde ariko da ipuinak kontatzen euskaraz, haurrei. 1997an hasi zen ipuinak bilatzen, asmatzen, idazten eta irakurtzen. Baina batez ere, zerbait kontatu nahi dieten guztiei entzuten eta entzun nahi dizkieten guztiei kontatzen.

### ■ Ester Poveda eta J. Luis Mellado.

16:00etan, Otsabi elkarteak, Ester Poveda eta J. Luis Mellado saioa izango da. Poveda Valentziarra da, aktore nahiz abeslari lanetan aritzen da. Kale antzerkian zentratu du bere ibilbide gehiena, jaialdi eta garaiko azoketan parte hartuz. Mellado bertiz Txiletik dator. Aktorea, gidolaria, eta zutabegilea ere bada. Egun, abuztuan ospatuko den Iberoamerikako lehen jaialdirako dihardu lanean.

■ **Cristina Macia eta David Wapner.** San Esteban, 18:00etan izango da bi artista hauen emanaldia. Macia Valentziatik (Herrialde Katalanak) dator. Dantza klasiko, garaikideko, pantomimako eta antzezpeneko ikasketak ditu. La Caratula taldearekin lanean aritu zen 1981 eta 1996 bitartean. Urte horretan bertan sortu zuen Maracaibo Teatro konpainia. 1989tik hona, antzerki lanak ahazko narrazioarekin uztartzen du, nazio mailako nahiz nazioarteko jaialdietan parte hartuz. Wapner poeta, narrazitzaile, musiko eta titiritero argentinarra da. Beste hainbat poeta eta musikorekin batera sortu zuen Gutural, musika eta antzerki banda. 1998tik Israelen bizi da.

■ **Poeta Saharauiak.** 20:00etan, Amaroako Auzo Etxe elkarteak izango dira Bahia Mahmud Awah, Zahara Hasnau, Ali Salemselmu eta Chehdan Mahmud. Hauek Saharako hainbat ipuin kontatuko dituzte gaztelerez. Istoria hauek berak, hasanieraz entzun ahal izango

dira Ereite elkarteak. Bestalde, ekimen honekin lotuta, Errota-Haur Liburutegian 'Una puerta al Sahara' dokumentala ikusi ahal izango da hilaren 13an, 19:00etan.

### Martxoak 15, igandea

■ **Maite Franco.** 11:00etan, Urkizun, Maite Franco ariko da ipuinak kontatzen euskaraz.

■ **Bonifacio Ofogo eta Antonio Gonzalez.** 16:00etan, Otsabi elkarteak, bi artista hauen emanaldia izango da. Ofogo Kamerundik dator. Bere hitzetan, «ahazkotasaneko ohihurtaren seme da, Kamerun barnealdeko herriska batean jaio eta hazi baitzen. Non edozein informazio edo jakintzatarra helitzeko ahazko trasmisioa ezinbestekoa zen.

■ **Ana Torrellas eta Christian Atanasiu.** 18:00etan, San Esteban auzoan izango da bi artista hauen emanaldia. Torrellas, Venezuelarra da bera eta ipuin kontalaritza Venezuelan ospatu zen Ahazkotasanaren Nazioarteko Jaialdian ezaugarri zuten. Alemaniatik dator Atanasiu. Arte Ederrak ikasi zituen eta ondoren zirkoan eta antzerkian lanean hasi zen. 1979an pantomima ikasi zuen eta 1980anartzelona-ra joan zen mimoan espezializatzeko.

■ **Flora Ovalles.** Jaialdiko azken emanaldia 20:00etan, San Esteban auzoan izango da. Aktorea, titirilaria eta ahazko narrazitzailea da. Aktore nahiz zuzendari gisa hainbat konpainia sortu ditu.

## Laburrak

### Saskibaloi teknifikazio saioa, datorren astean

**TOLOSA** » Hilaren 15ean, 11:00etatik 12:30era, Usabal kiroldegiko behoko kantxan, saskibaloi teknifikazioarako jardunaldi bat egingo da. Saioa 1997 eta 1998 urteetan jaiotakoei zuzenduta dago. Prestakuntza lanak bertako entrenatzailek egingo dituzte. Tolosaldeko zentro guztietako gazteentzat zabalik dago deialdia. Informazio gehiago: [www.takesb.com](http://www.takesb.com) edo [takesb@takesb.com](mailto:takesb@takesb.com) helbidean eskuratu daiteke.

### Miriam Mendoza ipuinak kontatzen ariko da bihar

**TOLOSA** » Bihar, Errota-Haur Liburutegian Ipuin Txokoa izango da 18:00etan. Miriam Mendoza ipuin-kontalaria izango da bertan. Ekimen hau 3-6 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, eta baita, euren gurasoei ere.

### 'Piratak' emanaldirako sarrerak salgai daude

**TOLOSA** » Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek *Piratak*, beraien azken ikuskizuna eskainiko dute Leidor antzokian. Ekitaldia martxoaren 14an izango da. Bi saio izango dira, bata 16:30ean eta bigarrena, 18:30ean. Sarrerak salgai daude dagoeneko. Hauek ondorengo lekuetan eskura daitezke sei euroren truke: Leidor antzokiko leihatilan eta [www.kutxa.net-en](http://www.kutxa.net-en).

### 'Estrellas de La Linea' filma ikusgai izango da bihar

**TOLOSA** » Bihar Leidorren, Zine-forumean, Chema Rodriguezen *Estrellas de La Linea* filma izango da ikusgai. Lehen saioa 19:15ean izango da, eta bigarrena, 21:45ean.

### Karmen Agirri egokitu zaio eskolako saria

**BERROBI** » Eskolan egin ohi duen zozketak badu saritu berri bat. Oraingo honetan Gabitegiko Karmen Agirre izan da. Honenbestez, eskolako kide guztien izenenean «zorianak».

### Bihar, bartoloetako Festa Batzordearen bilera

**IBARRA** » Bartolaren Batzordeak bartoloetako Festa Batzordean parte hartuzera deitu ditu ibartarrak eta herriko talde guztiak. Horretarako bilera egingo dute bihar 19:00etan Kultur Etxean. Ludoteka zerbitzua ere egingo dugu jakinarazi dute Bartolaren Batzordekoek. «Aurten Ibarroko jaiak herriatik eta herriarentzat antolatzeko apustua egin dugu, baztertzaleak baztertuz, horretarako, Festa Batzordean denon parte-hartzea beharrekoa da» aipatu dute Bartolaren Batzordeko kideak.



# GPS ikastaroa eta zubian irteera, Oargiren martxoko hitzorduak

**Mendizaletasuna** » Aran bailarara egingo dute bidaia elkarteek; GPS ikastaroan izena emateko azken eguna, ostirala.



Martxoaren 22an Berribesi Sur gailurrera igoko dira Oargikoak. HITZA

## ERREDAKZIOA

Mendizaleek aisialdirako aukera ederra dute martxoan zehar, izan ere, Oargi mendi elkarteak hilabete honetan bi hitzordu garrantzitsu antolatatu ditu.

Batetik, martxoaren 19tik 22ra bitarteko zubian Aran bailarara joango dira. Lau eguez izango dira bertan. Ostegunean abiatuko dira autoz 08:00etan. Espitau de Vielha aterpetxeraino joango dira (laur ordu inguruko bidaia izango da) eta 3 gau egingo dituzte bertan (25 euro eguneko pentsio erdian). Ostiralean, aterpetxean gosalduek ondoren Tuc de Moulleres (3014 m) mendira igoko dira, 1400 metroko desnibeekin.

Larunbatean, berriz, gosalduek ondoren abiatuko dira autoz Bosc Negre aldera, hemendik hasiko direlarik ibiltzen. Hain zuzen, Berribesi Sur gailurreraino igoko dira (3030 m) eta igandean etxealdera abiatuko dira, gosalduek ondoren. Bi gailur hauek egiteko 9 eta 10 ordu

inguru beharko dituztela aurreikusiko dute elkarteek, hurrenez hurren.

Irteeran parte hartzeko 688 69 842 telefono zenbakira dei daiteke martxoaren 16a baino lehen. Izena ematearekin batera 20 euro ordaindu beharko direla aurreikusiko

dute (aterpetxean lekua gordetzeko), elkarteetan bertan edo Euskadiko Kutzaren kontu korrontean (3035 0028 11 0281141038).

Ohiko ekipamenduaz gain, kranpoiak eta pioletak eman beharko direla informatu dute. Ez dutenentzat elkarteetan alokatzeko aukera dago. Irteera osoa 100 euro ingurukoa izango da.

## Lau eguez, GPSaz gehiago jakitero aukera

Bestetik, GPS ikastaroa ere antolatuko dute tolosarrek. Lau egunetan emango dute ikastaro hau; hain zuzen, martxoaren 9an eta 11n eta 13an, astelehena, asteazkena eta ostirala, 19:30etik 21:00etara, eta hilaren 14an, larunbatarekin, 08:30etik 15:00etara.

Zehaztu dutenez, bertan landuko dituzten gaiak hauek izango dira: GPS motak eta erabilera; bide bat jarraitu eta egindakoa gorde; track, waypoint; Oziexplorer eta ordenagailua; eta podometroaren erabilera.

Bertan parte hartzeko interesa dutenentzat etzi, ostirala, izango da izena emateko azken eguna. Horretarako bi bide ireki dituzte Oargi mendi elkarteek. Batetik, helbide elektronikoa: [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) eta bestetik telefono zenbakia: 688698642.

## Asturiasera bidaia antolatuko apirilera Harizpe elkarteak

**Gizartea** » Txartelak apirilaren 16ra arte daude salgai; sei egun eta 5 gau igaroko dituzte bertan.

## ERREDAKZIOA

Harizpe elkarteak Asturiasera (Espainia) bidaia antolatuko du apirilaren 23tik 28ra bitarte (6 egun, 5 gau). Txartelak dagoeneko salgai daude eta apirilaren 16ra arte dago aukera izena emateko edo plazak bete arte.

Bazkideek 255 euro ordainduko beharko dituzte eta ez bazkideek 260 euro (gela indibidualarengatik gehitu beharrekoa, 90 euro). Prezioaren baitan doaz, Doña Nieves hotelean (Noreñan) pentsio osoa edariarekin, autobusa, joan-etorria eta txangoak, bidaia aseguru eta bazkaria Cangas de Onisen.

## Bidaiaren nondik norakoak

Apirilaren 23an irtengo dira Santa Klaratik, 07:30ean. Beharrezko geldialdiak eginez Cangas de Onisen bazkalduko dute eta Covadonga bisitatu dute. Datoren egunetan, Luarga, Avile, Oviedo, Gijon, Ribadesella, Candas, Redes parkea, Laviana eta tolar bate ere bisitatu dute.

tolosaldeko, leitzaldeko eta goierriko

# ostalaritza Gida2009

Jatetxeak, sagarotegiak, erretegiak eta pintxo tabernak biltzen dituen

**gidarik osatuena**



..orain **tolosaldeko**[hitza.info](http://hitza.info)-n ere bai!

Jatetxeen informazioa osatuena: argazkiak, informazio erabilgarria, iragarlearen webgunera link zuzena.

**Bilatzaile erabilgarria**

Hitza guztien gida [hitza.info](http://hitza.info)-n

**hitza**

## 32 zuhaitz landatuko dituzte Amarotzen

**Ingurumena** » 'Haur bat-zuhaitz bat' Eguna antolatuko dute igandera 11:00etan; ondoren, hamaiketako izango da auzo etxean.

rako «potetxo batzuetan hazia sartuko dute haurrek etxean landaretxoa nola hazten den ikusi eta zaindu ahal izateko».

Bukatzeke, hamaiketako izango dute auzo etxean.

## ERREDAKZIOA

Datorren igandean, martxoaren 8an, goizeko 11:00etan 2000 urteaz geroztik ospatzen duten festa errepikatuko dute Amarotzen, *Haur bat-zuhaitz bat* Eguna, hain zuzen ere.

Oraingo honetan, 32 zuhaitz landatuko dituzte azken 2 urteetan Amarotzen jaiotako haurren izen eta jaiotza data azalduko delarik.

Auzokideek azaldu dutenez, aurtengo ekitaldian gurasoek barenkarrik ez dute zuhaitza landatuko, aurtun beste 32 haur laguntzailek zuhaitza landatzen lagunduko diete gurasoei.

Landaketa bukatu ondoren, haur laguntzaileak eguneko protagonista txikiak zuhaitza nondik datorren erakutsiko diete. Horretara

## Ingurumenaren aldeko ahalegina

Festa egiteaz gain, «ingurua zaintzeko eta mantentzeko egiten den ahalegina» azpimarratu dute Amarotz auzoko antolatzaileek, «garai bateko auzolanak erakusten duten bezala konpromiso arduratsua eta elkarlana bultzatuz».

Bestalde, «egun hau naturarizor diogun errespetua eta maitasuna sustatzeko balio izatea gustatuko litzaiguke», aitortu dut. «Tamalez egunetik egunera natura kolpatuago baitago utzikeriarengatik eta batzuen progresorearen izenean», gaineratu dute.

Horrela bada, ekitaldi honek bere helburua lortzea nahi lukete, «auzo bizi, partaidea eta bere beharren erantzule den auzoa izaten jarraitu ahal izateko».

# Bazkaria, Mendiluze eta Zubeldiarekin

**Alegia** » Hilaren 14an Txolarre irratia eta Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak bertso-bazkaria antolatu dute.

## NEREA URBIZU

Hilaren 14ean, larunbata, bertso-bazkaria prestatu dute Alegian, *Kabitik plazara*. Zazpi Astoren Gainean bertso eskola eta Txolarre irratia izan dira antolatzaile lanetan. Kasu honetan gonbidatu dituzten bertsolariak hauek dira: Iker Zubeldia eta Aitor Mendiluze, punta puntako bertsolariak, beraz. Gai jartzaile lanetan ere, atzean gelditzen ez den horietako, Iker Iriarte alegiarra izango baita.

Bertara joateko txartelak Alegiako tabernetan (Ixkiña, Etxeberriaren, Kafen, Jubilatuenan eta Kultur Etxean). Hilaren 12ra arte egongo dira salgai (osteguna), 18 euroren truke. Honen baitan, menua eta bertsolarien saioa sartzen



Martxoaren 14ko bertso bazkaria iragartzeko prestatuduten kartela. HITZA

## » HAINBAT DATU

- **Ekitaldia.** Bertso bazkaria.
- **Eguna.** Martxoak 14, larunbata.
- **Bertsolariak.** Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldia.
- **Lekua.** Kultur Etxea.
- **Prezioa.** 18 euro.
- **Izen-emate epea.** Hilaren 12ra arte, osteguna.
- **Txartelak.** Ixkiñan, Jubilatuenan, Etxeberriaren, Kafen eta Kultur Etxean.
- **Antolatzaileak.** Txolarre irratia eta Zazpi Astoren Gainean.

dira. Bazkaria, gainera Kultur Etxean izango da, 14:00etan.

Menua paella, biribilkia osagarriekin eta pantxineta txokolatarekin izango dira. Kafea eta kopa hartzeko aukera ere badago, noski.

Bertso bazkariak eta afariak antolatu izan dituztenen arrakasta handia izan da eta aurten ere hala espero dute, bertsozaleak, bertsoa ezagutu nahi dutenak zein bertsolari izateko bidean direnak biltzea, hain zuzen.

# Aurrera-Saiaz Euskadiko Txapelketako gutxienez hiru finaleretan da

## ERREDAKZIOA

Aurrera-Saiaz Euskadiko Txapelketan ari da jokatzeko. Zortzi talde aurkeztu zituzten eta lau finalerdi jokatu dituzte eta horietatik hiru finala jokatu dute.

Hauek dira jokatu dituzten finalak: 22 urte azpikoetan banakakoan, Albusuk Huarteko pilota elkarteko baten kontra jokatu du Amurrioren, etzi. Ohorezko mailako banakakoan, Onsalok Usansoloko pilotari baten aurka neurtu beharko ditu indarrak, Zumarragan igandean. Bigarren partidaren ohorezko mailako binakakoak, hau da, Renobales-E. Galarraga, Zumarragako bikotearen aurka lehiatuko dira. Azken bi partida hauekin datorren urtean Euskadiko Txapelketan ohorezko mailan aritzeko txartela eskuratu dute.

## Laburrak

### Intxurre futbol taldea, zazpigarren postuan

**ALEGIA** » Intxurre futbol taldeko mutilek 5-2 galdu zuten lidertza duen taldearen kontra. Intxurrek 7. postuan jarraitzen du. Dena den, zazpi partida jokatu ditu eta gehienek 8 egin dituzte jadanik. Asteburuko partida irabaziz gero eta beste taldeak berdin mantenduta, 5. postura igo daiteke. Asteburuan Gure Txokoaren kontra galduta ere, 7. postuan mantenduko dira.

### Zirkulazio zerga ordaintzeko epea irekita

**IKAZTEGIETA** » 2009. urteko zirkulazio zergari dagokion errolda onartu dute Ikaztegieta, eta honi dagokion ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jarriak izan dira. Ordaintzeko epea apirilaren 8ra arte dago irekita. Ordainketa banketxean nahiz udaletxean egin ahal izango da. Helbideratuta dauden ordainagiriak 2009ko apirilaren 8an kobratuko dituzte.

# Lau baserri-bide konponduko dituzte

**Bidegoian** » Uda baino lehenagorako bukatuta egongo da obra; hauekiko bat Goiatzen dago eta aurki hasiko dira hobetzen.

## NEREA URBIZU

Joan den otsailaren 13an, Espainiako Gobernuak Bidegoiango diru laguntza emango zuela eman zuen argitaratu. Bidegoiango diru kopurua 85.485 eurokoa da eta guztia proiektu bakarerrako erabiliko du: baserri-bideak hobetzeko edo berritzeko, hain zuzen ere. Egia esan, bideak ez daude oso egoera onean, dauden zuloak handi xamarrak dira eta.

Otsailaren 25ean ohiko bilkura egin zuten eta bertan, lizitazio pleguak onartu zituzten. Beraz, fase horretan daude. Hilabete honen baitan esleitu beharko da. «Udairi-



Besteen artean, herritik hilerrira doan bidea konponduko dute, zuloz beteta baitago asfaltoa. N. URBIZU

tsi baino lehenago bukatu egingo dituztela» dio Pello Arzallus alkateak, eta «bi aste inguruko lana» izango dela.

Guztira lau zati daude berritu edo hobetu beharrik: bat Goiatzen eta beste hiruak Bidanian. Orain arte egin beharreko lanak egin di-

tuzte, hau da, hiru enpresari aurrekontuak eskatu. Eguraldiak, hala ere, baldintzatuko du obra hauen erritmoa.

## Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel. 943-65 56 95

**PAULINO CALVILLO BRAVO**  
-Goian bego-



Goierriko Eskola Kiroleko lagunak, beti lagun.

ORDIZIA  
2009ko  
martxoaren 4a

**AITZIBER GALDOS PINEDO**

Igandean hil zen, 22 urterekin.

Ez zaitugu ahaztuko.

Unibertsitateko lagunak

LEGAZPI  
2009ko  
martxoaren 4a

# Emakumearen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko ekintzak



Bilgune Feministak eta Zizurkilgo Udalak Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatutako ekintzen berri emateko agerraldiak egin dituzte. R. CALVO



## EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLAK

Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak antolatu ditu. Emakumeek gizartea eraikitzeke baldintza berberetan parte hartzeko aukera izateko lantresnak garatzea dute helburu. Izan ere, «hausnartzeko, ikasteko eta ekiteko espazio bat sortzeko» laguntza eman nahi dute horrela. Zehazki, ikastaro desberdinak antolatu dituzte; lehen hilean bitan izango da eta Mertxe Trantxek eskainiko du. Honakoan emakume idazle bikainen literaturari eginiko ekarpenen inguruan hitz egingo dute, besteak beste. Hilaren 9an izango den tailerra Hiria Kolektiboak eskainiko du. Beste bi tailerretako datok zehaztu egin behar dituzte oraindik eta *Etxeko langileen sarea aktibatzea* eta *Jabekuntza gorpuztetik: Afrikako dantzak* dute izena.

**Martxoak 8** » Emakumearen Nazioarteko Eguna da igandean eta hori dela-eta ekitaldi ugari antolatu dituzte eskualdean.

### REBEKA CALVO

Emakumearen Nazioarteko Eguna izango da igandean, Martxoaren 8a, alegia, egutegian gorritz azpimarratutako data.

Mundu osoan ospatzen da eguna eta Martxoak 8ak aurrekari asko baditu ere, egun hau ospatzearen inguruan gehien zabaldu den historia New Yorken (AEB) izan zen. 1908ko martxoaren 8an aipatu hiriko Cotton enpresan 146 emakume hil ziren sute baten ondorioz. Emakume hauek euren lan baldintzak hobetzeko itxialdia egin zuten enpresan eta handik aterarazteko botatako suzko bonbek erangidako sutearen ondorioz hil ziren. 1957ko martxoaren 8an hiri berean egindako manifestazioek ere eragina izan zuten Nazioarteko Emakumearen Eguna zehazterako garaian.

Eskualdean ere, mundu osoan bezalaxe, herri askotan ospatuko dute aldarrikapen data berezi hau, nahiz eta egunean bertan baino, aurreko bi egunetarako antolatu dituzten ekitaldi gehienak.

**Aborto eskubidea aldarrikatuz**  
Era berean, eskualdeko Bilgune Feministak prentsaurrekoa eskai-

ni zuten antolatutako ekintzen berri eman asmoz.

Aurtengoan «abortatzeko dugun eskubidea» aldarrikatuko dute, izan ere «emakumeon eskubide sexual eta erreproduktiboak zapalduak daude. Euskal Herrian emakumeok ezin dugu gure gorputzari buruzko erabakirik hartu, abortua ez da libre, ezta doakoa ere», azpimarratu zuten agerraldian. Igandean Bilgune Feministak Donostian 13:30ean abiatuko den manifestazioa joateko deia ere luzatu zuten.

Zizurkilgo Udalak ere eman zuten prentsurrekoa. Marian Lazkano alkateak Emakumearen Nazioarteko Eguna aldarrikatzea garrantzitsua dela esan zuen eta hori dela-eta herrian ere izango da zerregina datozen egunetan.

Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak Emakumearen Nazioarteko Egunerako ekintzak antolatzearekin batera, gainera, bestelako ekimenak ere abiarazi ditu. Horiek horrela, berdintasunaren aldeko logotipoa sortzeko lehiaketa antolatu du 13 urtetik 25 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Lanak maitezaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira.

## » EKINTZAK

### Tolosa

■ **Martxoak 5.** 16:30ean Asvine-neko antzerki taldearen antzerki emanaldia EPAREN lokaletan (Igaralde kalea, 23). EPAK antolatuta.  
■ **Martxoak 6.** 18:00etan hitzaldia Topagunean Josebe Iturrioz Tolosako Berdintasun Teknikariaren eskutik. Udalak antolatuta.  
■ **Martxoak 6.** Villabonako hiru gazteek Afrikan zehar zortzi hila-beteetan egindako bidaiaren diapositiba emanaldia 22:30ean Oargin, *Amafrika* izenekoa. Bilgune Feministak antolatuta.  
■ **Martxoak 7.** Kontzentrazioa San Frantzisko eliza aurrean 19:30ean. Ondoren, 21:00ak aldera, afaria Oargin. Izena emateko deitu 688 801 856 telefonora. Bilgune Feministak antolatuta.

■ **Martxoak 8.** XXY Lucia Punzoren laburmetraiaren emanaldia 18:00etan Topagunean. Udalak antolatuta.

■ **Martxoak 10.** ESCIVlko ikasleek egindako laburmetraien emanaldia 18:00etan EPAREN lokaletan. EPAK antolatuta.

■ **Martxoak 12.** Emakume batzarraren abortuaren inguruan hitz egiteko 19:30ean Kultur Etxean. Bilgune Feministak deituta.

### Albiztur

■ **Martxoak 7.** 19:30etik aurrera Goenkaleko Ainhua Aierbe (Leonor) eta Itziar Ituño (Nekane) aktoreen hitzaldia Kultur Etxean. Ondoren, 21:00etan afaria Elane jate-txean; Udaletxean eman behar da izena afarirako.

### Altzo

■ **Martxoak 7.** 20:30ean afaria Segoretzen, jate-txean bertan eman behar da izena eta bihar da azken eguna.

■ **Martxoak 10.** 19:30ean *Amafrika* bideo emanaldia izango da Kultur Etxean. Udalak antolatuta.

### Amezketza

■ **Martxoak 8.** Merienda

17:00etan Txindoki Tabernan.

### Alegia

■ **Martxoak 6.** Oihulari Klown Taldearen *Zai beti zai* emanaldia Kultur Etxeko batzar artean 22:00etan.

■ **Martxoak 7.** Txintxarri jate-txean afaria 21:00etatik aurrera 15 euroren truke. Udalak afariaren beste erdia ordaintzen du eta gaur da tiktetaz erosteko azken eguna.

### Anoeta

■ **Martxoak 8.** Xake txapelketa 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara kiroldegian. 12:00etan txistularien kalejira. 13:00etan Loatzo Musika Eskolako trikitilarien kalejira. 13:30ean trikipotea. 14:30ean Berto Bazkaria Jubilatuen Tabernan.

### Berastegi

■ **Martxoak 6.** Susana Garciak lo-reekin apaingarriak egiten irakatsiko du 17:00etatik aurrera Eskolako aretoan. Antolatzailea Aldin Kultur Elkarte.

■ **Martxoak 7.** Afaria Gaztaiñondo Elkarte 21:00etatik aurrera. Izena emateko deitu 943 68 31 51 edota 943 68 33 38 telefonoetara. Gaur da azken eguna. Antolatzailea Aldin Elkarte.

### Berrobi

■ **Martxoak 6.** Iriarten afaria; jate-txean eman behar da izena.

### Elduian

■ **Martxoak 7.** *Familia eta lana uzartzeko estrategiak* hitzaldia Jaione Fraileren eskutik 16:00etan Kultur Etxean. 21:00etan doako afaria Kontzejua; Udaletxean eman behar da izena 9:00etatik 14:00etara. Udalak antolatuta.

### Ikaztegieta

■ **Martxoak 6.** *Baserritik Baserrira* antzerkia 21:00etan kiroldegian.  
■ **Martxoak 7.** 20:15ean elkarretaratzera Udaletxearen aurrean, on-

doren, 21:00etan afaria Begiristain sagardotegian. Udalak antolatuta.

### Iruia

■ **Martxoak 6.** 19:00etan Elizan Loatzo Musika eskolakoen kontzertua. 21:00etan Zaharren Biltokian afaria; txartelak erosteko azken eguna gaur da.

■ **Martxoak 7.** 19:00etan Elizan emakume musikariaren kontzertua.

### Urkizu eta Aldaba auzoak

■ **Martxoak 7.** 10:30ean abiatuta txangoa Iturraren lorategi botanikoa ikusteko. San Martinen bazkalduko dute. Urkizu eta Aldabako Auzo Elkarteak antolatuta.

### Ugarte

■ **Martxoak 7.** 14:00etatik aurrera bazkaria Goikoetxea-enean.

### Villabona

■ **Gaur.** 19:00etan Gurea antzokian *Maskulinotasun berriak eta berdintasuna* hitzaldia.

■ **Martxoak 6.** Gurea antzokian 20:30ean Joserra Fachadoren *No sotras* antzezana.

■ **Martxoak 7.** 11:00etan Erreboteko plazan bateragarritasunari eta erantzukidetasunari buruzko jardunaldiak.

■ **Martxoak 8.** Erreboteko plazan 12:00etan elkarretaratzera eta trikipotea. 14:00etan bazkaria ere egingo dute.

### Zizurkil

■ **Gaur.** *Gu, Pirineotatik Denalira* izeneko ikus-entzunezkoa Patricia Viscarreten eskutik 19:30ean Atxulondo Kultur Etxean.

■ **Martxoak 5.** *Amafrika* ikus-entzunezkoaren emanaldia 19:30ean Atxulondon. Ondoren Mahai-ingurua egongo da.

■ **Martxoak 6.** *Nola lagundu haurrei ohitura osasungarriak har ditzaten* hitzaldia 17:30ean Atxulondon.

■ **Martxoak 7.** Sobroneko (Araba) Uraren Museora eta Varona Dorrra irteera.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## Gazari buruzko proiektzioa eta musika emanaldia, gaurkorako

**Anoeta** » Kultur Astea atzo hasi zen Idoia Sanchez ipuin-kontalariarekin; larunbatera arte ekitaldiak izango dira.

### ERREDAKZIOA

Anoetako aurtengo Kultur Astea ipuin kontaketaekin hasi dute. Idoia Sanchez ipuin-kontalariak egin zuen saioa atzo. Galtzaundi-erenskutik. Gaurbi emanaldi izango dira. Gaztetxean, Tamer Birawi palestinarrek *Zer gertatzen ari da Gazan?* proiektzioa egingo du, 18:00etan. Udal areto nagusian, 18:30etan, musika entzuteko aukera izango da. Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarenak txistuarekin eta akordeoiarekin emango dute saioa.

Biharkoari dagokionez, Ikastolako maila desberdinetako ikasleek azalduko dute irudien bidez zer landu duten Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan. 17:30ean izango da Ikastolan bertan.

Etzi ere bi ekitaldi izango dira. Alde batetik, Zuhaitz Egunarekin lotutakoa. Ikastolako LH5 eta LH6ko ikasleek zuhaixkak landatuko dituzte Iturtxulon, 15:30etik 17:00etara. Udal areto nagusian, 22:00etan, Glu Glu taldearen *Ezker-eskuma* antzezlan ikusi ahalako da. Larunbatean ere hainbat ekitaldi izango dira eta igandean Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruko ekimenak antolatuko dituzte.

## «Jendea irabazten duenak» jantziko du Beterriko txapela

**Villabona** » Larramendi Bazkunak Beterriko II. Bertsolari Txapelketa antolatu du; hilaren 13an da lehenengo kanporaketa.

### IMANOL GARCIA

Manuel Larramendi Bazkunak Beterriko II. Bertsolari Txapelketa antolatu du. Iazko arrakastari jarraitzen emanez, bi kanporaketa eta finala egingo dituzte. Txapelketak hartutako bideari jarraituz, bertsolari gazteek taldeka hartuko dute parte eta umorea ez da faltako. Antolatzaile lanetan aritzen den Amaia Agirrek azaltzen duenez, «jendea irabazten duenak eramango du txapela».

Hain justu, ohiko txapelketatik ezberdin pentsatuta dago Beterriko. Ohikoak ez diren ariketak eraman beharko dituzte. Agurra, esaterako, talde bakoitzak prestatuta eraman beharko du aurretik. Iaz epailek eta entzulegoak hartzen zuten erabakia. Aurtengoan entzulego izango da epaile bakarra.

Bertsolariei dagokionez, iaz guztiak gipuzkoarrak ziren eta aurten herrialdeka egingo da txapelketa. Horrela Gipuzkoatik Jokin Labayen, Uxue Alberdi eta Ander Lizarraldekin parte hartuko dute. Bizkaitik Gorka Ostolaza, Onintza Enbeita eta Oihana Bartra ariko dira. Arabako ordezkariak Iñaki Viñaspre, Manex Agirre eta Andere Arriolabengoa izango dira. Azkenik, Nafarroatik Julen Zelaieta, Erika Lagoma eta Jon Bar-



Iazkoan parte hartu zuen talde batek agurra egingen moztarotuta. HITZA

berena ariko dira lehian. «Iparraldean taldea osatzeko zaitasunak genituen», azaldu du Agirrek eta aurrera begira bertako bertsolariek parte hartzeko aukerak ikusiko dituztela gaineratu du. Gai jar-tzaile lanetan Agirre bera, Iker Iriarte alegiarra eta Egoitz Aizpuru izango dira.

Aipatzekoa da herrialde bakoitzari animalia izen bat jarri zaiola. Hala, nafarrak arranoak izango dira, gipuzkoarrak hontzak, arabarrak otsoak eta bizkaitarrak azeriak. Ezizen horiek ere bertso-ari-ketetan jokoa emango duela uste dute antolatzaileek.

### Kanporaketak eta finala

Saio guztiak bertso-afari bezala antolatuko dituzte. Guztiak 20:30ean hasiko dira eta 25 euroko prezioa izango dute. Lehenengo kanporaketa hilaren 13an jokatu da. Amasako Iturrigo txapelketa egingo da eta bertan parte hartuko dute Nafarroako *Arranoek* eta Gi-

puzkoako *Hontzek*. Hilaren 20an izango da bigarren kanporaketa, Zizurkilgo Olentzo txapelketa. Bertan Bizkaiko *Azeriak* eta Arabako *Otsoak* lehiatuko dira. Finala hilaren 28an izango da, Urnieta Oianume txapelketa.

Etzi jarriko dituzte txartelak salgai. Aiztondon hainbat lekutan erosi ahaliko dituzte: Zizurkil, Bazkunaren egoitzan eta Olentzo txapelketa; Amasa-Villabonan, Iturrigo txapelketa; Ogi-Goxo okindegian eta Basajaun liburudendan.

Jon Unanue Bazkuneko lehen-dakariak dioenez, iazkoak emandakoarekin «oso gustura» daude. «Oso giro ona izan zen eta gure asmoa txapelketa hau finkatzea da». 25-32 urte bitarteko bertsolariei zuzenduta txapelketa izaten jarraitu nahi du, hau da, bertsogintzan hasiberriak ez direnak, baina plazaetan aritzeko hainbeste aukera ez dutenak. Bestalde, Beterrin bertsozaletasuna sustatzea du helburu txapelketak.

## «Manex Castro askatzea» exijitu dute 450 lagunek

**Villabona** » Ertzaintzak inkomunikatuta duen bitartean batzarretara deitu dute egunero herriko plazan, 20:00etan.

### ERREDAKZIOA

Manex Castro billabonatarra aske uzteko ekimenak burutzen ari dira egunotan Villabonan. Larunbat gauean atxilotu zuen Ertzaintzak Castro eta ordundik inkomunikatuta dago. Astelehen gauean manifestazioa egin zuten herrian eta 450 lagun inguruk parte hartu zuten *Manex askatu* lelopean. Inkomunikatuta dagoen bitartean

20:00etan plazan batzarrerako deialdia egin dute, ondoren manifestazioa egiteko asmoz; atzo ere halaxe egin zuten. Igande arratsaldean manifestazioa egingen saiatu ziren bi alditan, baina Ertzaintzak debekatu egin zien. Igande gauean ezezagun zabor edukiontzia kale erdian jarri zituzten eta herriko Batzokiari eraso egin zioten, «protesta moduan».

Bestalde, gaur 20:00etan Villabonako udaletxean egingo den osoko bilkuran Castroren atxilotetaren inguruko mozioa eztabaidatuko dute eta bertara azaltzeko deia luzatu dute. Aurrera begira, etzi, ostiralean, eskualdeko manifestazioa antolatu dute Villabo-



Astelehen arratsaldean egin zen manifestazioa plazan amaitu zen. HITZA

nan, 19:30ean. *Manex askatu* lelopean egingo dute eta plazatik aterako da. Horrez gain, Castrok epailearen aurrean deklaratzera joan behar duenean, deialdia egingo da Madrileria joateko, autobusez edo autoz, Castro berari eta familiari elkartzuna adierazteko.

### Arartekarekin bilera

Torturaren Aurkako Taldeak (TAT) jakitera eman duenez, Manex Castroren senideak, Maixabel

Arrieta Villabonako alkatea eta TATEko abokatuak Arartekoarekin bilduko dira gaur.

TATetik azaldu dutenez, Lemarkarekin egingo duten bilkuren arrazoia Arartekoari Castroren egoeraren inguruan duten arduraren adierazte da. «Inkomunikatu gabe urteak igaro ondoren, Ertzaintzak inkomunikazioa erabili du gazte honekin», zehaztu dute tortura salatzen aritzen den elkartetik.

## Laburrak

### Korrikaren inguruko herri batzarra, gaur 20:00etan

**ANOETA** » Korrikaren inguruko herri batzarra egingo dute gaur Anoetan. Herriar guztiei egiten diete parte hartzeko deialdia. Udaletxean izango da batzarra, 20:00etan.

### Bi emanaldi egingo dute Loatzokoek elizan

**IRURA** » Loatzo musika eskolakoek bi emanaldi egingo dituzte Iruran. Lehenengoa etzi izango da, hilak 6, elizan eta 19:00etan. Musika ganbarara eta instrumentu taldeen emanaldi izango da. Beste emanaldia larunbatean izango da, hilak 7, lurra elizan eta 19:00etan. Emakume musikarien emanaldi izango da, emakumeen egunarekin lotuta; Loatzok antolatzen duen lehen aldia da.

### Autobus batean Internet ikastaroak egiteko aukera

**ZIZURKIL** » Internet Zuretzat proiektuaren baitan internet ikastaroak emango dituen autobus bat egingo da Zizurkil, gaur, 10:30etik 12:30era Pasus Plazan. 25 urtetik gorakoei dago zuzendua.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Herrialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbolak:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Lurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474



8°  
3°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	5°
HOTZENA	4°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** OS-3398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Hitzaldiak

- **Tolosa.** Oinarriko hezkuntzaren kurikulumak; konpetentziak, helburuak eta edukiak hitzaldia Samaniego ikastetxean 16:30ean.
- **Zizurkil.** Gu, Pirinioetatik Denalira proiektioa emango dute Atxulondo kultur etxean 19:30ean, Emakumearen Astearen barruan.
- **Anoeta.** Zer gertatzen ari da Gazan? proiektioa emango du Thamer Birawi palestinarrek Gaztetxean, 18:00etan.
- **Villabona.** Gurea zine aretoan 19:00etan hasita *Maskulinitasun berriak eta berdintasuna* hitzaldia eta ondoren, bertaratuko direnentzat luntx moduko bat emango diete.

### Deialdiak

- **Ibarra.** Ostiraleko Ibarra-Alegia bertso desafioko afariko txartelak salgai 15 euroren truke Zubiaurren, Atarin eta Danon Txokoa tabernetan. Antolatzailea: TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA.
- **Tolosa.** Haur bereziekin lan egiteko ipuin tailerra *El cuento y la inclusión* izenburuan, Ana Torrellek emana, martxoaren 6an eta 7an. Izen-ematea, Asvinenean, 60 eurotan. Informazioa [asvinenea@gmail.com](mailto:asvinenea@gmail.com) edo 647 201401 zenbakian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.
- **Leitza.** Campos M.Z. Elbarren 52. 112.
- **Bihar**
- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 3274.
- **Leitza.** Campos M.Z. Elbarren 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Krisiaren aurrean aldaketaren beharra

**ANOETA** • Krisia eta bere ondorioei buruz aritu ziren atzo solasean, Anoeta-ko udaletxean, LAB sindikatuak antolatutako hitzaldian. Egoera ez dela aldaezina aipatu zuten, eta langile, pertsioidun, langabezian daudenak, gazteak... horren kontra borrokatu behar dutela. Hala, eredu ekonomikok,

sozial eta politikoaren aldaketa ezinbesteko eta premiazkotzat jo zuten, «Euskal Herriaren guztiok ondo bizitzeko behar beste aberastasun baitago, baina aberastasun hori modu justuan banatu beharra dago, pertsonen mesederako, eta ez alderantziz». I.GARCIA

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat  
sarrera pare bat du

sarrerak eskuratzeko deitu:  
**943-65 56 95**  
harpidedun kodea eskura duzula

Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunen izenak martxoaren 6ko egunkarian.

**BRUESA GBC**  
Club Baloncesto Murcia

**IGANDEA**  
**MARTXOAK 8 - 12:30**

ILLUNBE



harpidedunak  
**TXOKOA hitza**